

Toti Martínez de Lezea



# Malkoak lur antzuan

n a r r a t i b a •

erejin

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*1. argitalpena: 2018ko azaroan*

Jatorrizko izenburua:

*Llanto en la tierra baldía*

Azalaren diseinua:

Aritz Albaizar

Maketazioa:

Erein

Itzulpena:

Miren Arratibel

© Toti Martínez de Lezea

© EREIN. Donostia 2018

ISBN: 978-84-9109-339-8

L. G.: SS-1330/2018

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: [erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)    

Inprimatzailea: Gertu inprimategia

Zubillaga industrialdea, 9

20560 Oiñati, Gipuzkoa

T 943 783 309 F 943 783 133

e-mail: [gertu@gertu.net](mailto:gertu@gertu.net)

[www.gertu.net](http://www.gertu.net)

Toti Martínez de Lezea

# MALKOAK LUR ANTZUAN

Itzulpena:  
Miren Arratibel



## Azken kanta

Margotua bai, ez hutsik:  
margotua dago nire etxea  
grina eta zoritxar  
handien kolorez.

Itzuliko da negarretik,  
hara eramán baitzuten  
mahai mortua eta  
ohe hondatua hartuta.

Muxuak dira loratuko  
bururdien gainean,  
eta gorputzak bilduz  
maindireak jasoko du  
bere aihen bizia,  
gaueko, lurrintsu.

Gorrotoa arinduz  
leihoaren atzean.  
Hura, erpe leuna.  
Utzi niri esperantza.

(MIGUEL HERNÁNDEZ GILABERT, 1910-1942)

CANCIÓN ÚLTIMA:/ Pintada, no vacía:/ pintada está mi casa/ del color de las  
grandes/ pasiones y desgracias.// Regresará del llanto/ adonde fue llevada/  
con su desierta mesa/ con su ruínosa cama.// Florecerán los besos/ sobre las  
almohadas./ Y en torno de los cuerpos/ elevará la sábana/ su intensa  
enredadera/ nocturna, perfumada.// El odio se amortigua/ detrás de la  
ventana./ Será la garra suave./ Dejádme la esperanza.

**B**este edonork bezalaxe, berak ere bazuen gaueko *sacá* haien entzutea; *paseoa* zeritzen beste batzuek. Gaez etorri, eta norbait eramaten zuten, eta sekula gehiago ez zuen inork haren berri izaten. Hortaz, ez zen harritu bi gizon ikusirik sasi artean erdi ezkutatuta, aurpegia kolpeek desitxuratuta, eskuak bizkarrean lotuta, tiro bana lokian. Gauza ohikoa zen heriotza, baina, hala ere, lehen aldia zen hildako baten gorpua ikusten zuena, eta arretaz behatu zien bi haiei, jakin-minez, emoziorik gabe. Litekeena zen edozein unetan bere bila etortzea, eta bere buruari galdetu zion nola jokatu ote zuen hala gertatuz gero. Bere burua imajinatu zuen atean kolpeak entzunda gau betean esnatu eta gizon armatu batzuekin topo egiten, ezagunak haietako batzuk, agian: indarrez kalera atera, gero toki mortu batera eraman eta tiro bat joko zioten, edo bi. Erreguka hasiko zen? Otoitz egingo zuen, akaso? Edo orroa? Edo dena amaitu zain geldituko zen, besterik

gabe? Auskalo. Begiak zabal-zabalik zituzten biek, zerura begira baleude bezala, beldurrik gabe, lasai. Ba ote zekiten zer patu izango zuten? Alde batera utzi zituen galderak, jakinik ez zuela erantzunik, eta pala baten bila joan zen; lurra zulatzen luzaroan jardun, bi hilobi zulatu, gorpuk zuloetaraino arrastaka eraman, eta ehortzi egin zituen; ondoren, harri meta txiki bat jarri zuen nola-halako hilobi haien gainean. Jarraian, aitaren egin, eta lanean jarraitu zuen erretenaren alboko bere baratze txikian.

**B**ero sapa zegoen, eta izerdi tantez blai zuen Damasok aurpegia. Izukaitz, ohi bezala, goldeari bultzaka ari zen, *Albina* izeneko mandoa zihoala tiraka, noizbait agian zuria izan zelako aurreko jabeak hala bataiatua. Orduko izenari eutsi zion animaliak, kolore nabar grisaxka tankerako astemea bihurtua bazegoen ere, bigarren azala balitz bezala gorputzari itsatsirik gelditu zitzaion hautsagatik batik bat. Itxura negargarria zuen, ilea lepondoan itsatsita, buztana zimel, baina hanka sendo askoak zituen Albinak, eta gai zen hainbat orduz zirkinik egin gabe tiraka jarduteko. Azken sei urteetan peoi jardunda aurreztutakoarekin mando huraxe erosi, eta mando-aurreko hasi zen, zertxobait gehiago irabazteko; ez zuen askoz gehiago ateratzen, baina libreago sentitzen zen. Gainera, aitarengandik herentzian jasotako La Morena lur sail txikia ereiteko asmoa zuen; laboreak eta barazkiak landuko zituen, beretzat eta azokan saltzeko, horretarako denbora

puska bat beharko bazuen ere. Bere lur puska hori, aspalditik landu gabea, harrizta bat zen soroa baino gehiago, eta denbora gehiago ematen zuen harriak kentzen, ildoak egiten baino. Bien bitartean, gaztainak, intxaurrak, baiak, dozena erdi oiloren arrautzak eta erbi gisatuez elikatzen zen; atxilotzeko arriskuan harrapatzen zituen erbiak, kondearen finkan sartu beharra baitzeukan ehizara. Hura beste bizibiderik ez zuen ezagutu txikitatik: isilka ibiltzen zen aitaren atzetik, ezkutuko ehizan, amaren pozgarri, zorte ona izanez gero. Zortea aldeko ez bazuten, berriz, ogi-apur frijituak: ogi-apurrak gosaltzeko, bazkaltzeko eta afaltzeko, pipergorritz onduta, arrautzekin eta, tarteka, hirugihar pixka batekin.

Dena den, alferrik saiatuko zen. Edozer gauza egiten zuela ere, miseria gorrian biziko zen beti: morroi jaio zen, eta morroi hilko zen. Bakarrik. Madarikatu batzuen erruz, bizitzan zuen pozbide bakarra galdu zuen: hamabost urte zituela bihotza lapurtu zion txirikorda luzeekiko neskatxa bat, hemezortzi zituena orain, berak baino lau gutxiago. Ongi pentsatuta, halere, bere txabola ez zen adreiluzko etxean hazitako emakume bat bizitzera eramateko toki egokia: oin eta gela bakarra, leihorik ez, eta arba eta arbazta hutsezkoa sabaia, zirrikituz josia, haizea nonahi sartzen zela.

Ama Birjina egun batez maitemindu zen Luciarekin, herriko jaietan; pasodoblea dantzatzera gonbidatu zuen, eta zalantza izpirik egin gabe onartu zuen neskak eskaintza. Galdu egin zen haren begiradaren gau izartuan; haren irribarrean, eta hark erakusten zituen hortzetan, zeinak iruditu baitzitzaizkion perla ederrak; haren adatsean, aske imajinatuz haren bular txikien gainetik dantzan. Ez zien arretarik eman



neskaren gurasoei: Aquilino *Oilarra*, bere harropuzkeriagatik ezizen hura zuena, kondearen upeltegiaren arduraduna, eta haren emaztea; biek nahi zuten, jakina, familiari onurak ekarriko zizkion ezkongai egokia alabarentzat. Ez zien erreparatu, halaber, ez Aquilino *Oilartxikiri* ez Eulogio *Oilaxkori*, baina begira-begira zituen neskaren bi anaiak. Eta zaharrena zitzu bizian hurbildu zitzaien, ikusi orduko bikotea dantzan jarraitzeko asmotan zela: arrebari besotik heldu, eta airean atera zuen korrotik. Keinu hura ez zitzaien oharkabeen igaro ikusle batzuei, bereziki herriko kontakatiluei, konturatu baitziren nola aldendu zen plazaren erditik bera ere, *Txikerraren* semea, egoera aldrebes harekin harrিতuta eta zuriz jantzitako neskatila txirikordadunaren tokia hartzeko irrikaz zeuden neskatxen begiradei jaramon egin gabe.

Begi onez hartzen ez zuten harreman haren kontra Oilarrek erakutsitako kontrako jarrera agerikoak bi gazteen arteko irrika hauspotu besterik ez zuen egin, ordea. Elkarri begiratzen zioten mezetan, festetan, azoka egunetan, ahal zuten guztietan. Eta ezkutuan elkartzen hasi ziren ibaian, kanaberen artean gordeka, ermitan, muinoan. Elkarganatze xaloak izaten ziren, berriketan eta ameskerietan jarduten zuten. Gehien-gehienez, eskutik heltzen zioten elkarri, harik eta, halako batean, beren ezpaineak bat egin zuten arte; kostata eutsi zioten beren desiraren ziztadari amore eman gabe. Handik egun batzuetara, Oilartxiki eta Oilaxko Damasoren zain gelditu ziren etxolaren eta herriaren arteko bide bazter batean. Hitz erdi bat esan gabe egurtu, eta lurtean utzi zuten, piltzar odoldu bat balitz bezala botata. Orduan hitz egin zuen Aquilino:

–Arrebarengana berriro hurbiltzen bahaiz, hireak egin dik.

Bere etxe zarpailera arrastaka iritsi, eta doi-doi moldatu zen konortea galdu aurretik etzateko ohean, amak ezkontzan emandako altzari on samar bakarra. Saihets batzuk hautsi eta hanka txikitu zizkioten, eta asteak behar izan zituen jipoitik osatzeko. Planta oneko gazte garaia zena, garraiaketan nahiz aitzurrean ongi zaildua, hezur eta azal gelditu zen, ez baitzeukan ehizara ateratzerik, ezta oinarrizko bizigaiak eskuratzerik ere, oilategiko arrautzak izan ezik, zeinak jaten zituen gordinik, ez baitzen sua pizteko egurra txikitzeke gauza. Beste bat goseak hilko zen, agian, baina eutsi egin zion berak; hala ere, goitik behera aldatu zitzaion aldartea, ordura arte herabe baina adeitsua. Etzanda ia denbora guztian, mailaturik gorputza, begirada sabaian iltzatuta, herrian inork bere kezkarik ez zuela, behin eta berriz gogoratu zituen jasandako kolpeak, laido iraingarria, eta ordura arte ezezaguna zuen sentimendu bat ernatu zitzaion erraietan: gorrotoa.

Urtebetean ez zuen berriro ikusi. Zaurietatik osatu zen, pixkanaka, baina orbaina gelditu zitzaion masailean, eta herrera eskuin hankan, berna-hezurraren haustura gaizki sendatuaren ondorioz; gutxienez, soldadutza egitetik libratu zuen ezbehar hark, eta gaitz erdi. Zerbitzu militarrean hiru urte egin behar izaten zituzten salbuespena ordaintzeko dirurik ez zutenek, eta zurrumurruak entzun zituen gerra bati buruz; Afrika zeritzon paraje batean omen zen gerra, eta haraxe bidaliko zuketan bera, seguru. Indarberritu zen enborrak moztan, ibilaldi luzeak eginez eta harriztan aitzurrean jardunez, baina ez zitzaion harrezkero argitu begirada ilun zorrotza.

Orduan erabaki zuen mandoa eroste, eta halaxe joan zen Alburquerqueko abere azokara. Han ikusi zuen berriro neska, gurasoak eta anaiak zituela inguruan, eta bihotza kolkoan atera beharrean jarri zitzaion, aurpegia aldaraziko zion gihar mugimendurik txikiena ere egin ez arren. Neskak ere ikusi zuen bera, eta, lehenengo ezustekotik bere onera etorrira, zirraturirik irribarre egin zion; ez zuen egin hurbiltzeko imintziorik, ordea, eta kezkatu begiratu zion anaiei, zeinak hantxe zebiltzan une hartantxe nagusiaren kortarako apote baten enkantean buru-belarri. Handik lau egunera, iluntzean, La Morenan agertu zen neska. Ez zioten elkarri hitzik esan; haragiz batu ziren, akitu arte, eta, iritsi bezalaxe alde egin zuen neskak, kanpandorrean arrosariorako ezkilak entzun orduko. Berdin gertatu zen beste pare bat aldiz, eta, ondoren, neska ez zen gehiago itzuli. Pentsatu zuen zerbaitek eragotziko ziola joatea, hotzeriak, senideren baten bisitak, baina, bi astez ikusi ez zuelarik, kezkatzen hasi zen. Haren faltaren zergatia ikertzera erabakita, amaren ahizpa baten etxera joan zen. Herriko gorabehera guztiak bururen buru zekizkien izeba Eusebiak, zeinak, bide batez, sekula ez zuen izan bera bizirik edo hilik zen jakiteko kezkarik. Ez zuten ia harremanik, eta ez zuen hartu zenbait hilabete lehenago gertatutakoa hari azaltzeko lanik; esan zion eroriko txar bat izan zuela eta hartatik zegoela herren. Emakumeak ez zion galdetu nola moldatu zen bera bakarrik egoera horretan; Ezkur likorezko hondar bat atera zion karratzez egindako mahai-tapiz baten gainean balio handiko objektua bailitzan ezarritako garrafatxo batetik, eta herritarrek aztoraturik zeuzkan gertaldiaz hitz egin zion: Abejaronesko jaun kondearen ezkontza.

–Igandean izango da, eta herri osoa dago gonbidatuta, hemengo neska gazte bat baita emaztegaia... –Eta zera erantsi zuen, ikusirik ilobak ez zuela interesik adierazi zorioneko neskaren izena jakiteko–: Lucia Oilanda, Aquilino Oilarraren alaba.

Begi zorrotzekoa izan beharra zegoen konturatzeko txikitu egin zitzaizkiola begiak, desagertzeraino ia, eta tenkatu barrailako giharrak.

–Aspaldi urdindu zitzaion ilea gizonari, egia, baina oinordekoa nahi berak, eta, badakizu: gaua sartua, guztia nahastua. Etorkizuna ziurtatzea da hemen kontua –jarraitu zuen emakumeak–. Gainera, hobe gizon eskarmentuduna eta diruduna, ezen ez garaño gazte pobrea. Esamesek diotenez, Oilarrak upeltegia utzi, eta etxaldearen administrazioaren ardura hartuko du. Don Aquilino esan beharko diogu hemen-dik aurrera, eta ez dira, ba, bera eta Marcela lehenaz gain gutxi harrotuko! Oraindik gogoan dut Marcela esne marmitekin etxez etxe ibiltzen zen garaia. Eta beren bi seme alproja horiek, parrandarako beste ezertarako gauza ez direnak. Horiek ere mesedetuko ditu ezkontzak, gauza jakina baita...

Eusebiak berriketan jarraitu zuen, baina berak ez zion jada aditzen. Oilarrenganako gorrotoa, baretua, ahaztua ia, Lucia berriro beregana itzuli zen tarte laburrean, biziberritu egin zitzaion, arnasa eteterainoko oldarraz. Agure aberats bati saldu zioten, beraz, mesedeen truke. Eta Luciak? Nolatan onartu zuen? Zergatik ez zuen ihes egin? Zergatik ez zen bere bila joan? Elkarrekin ihes egingo zuten toki madarikatu hartatik, bera ez beste guztiak morroitzat zituen nagusi baten jabetzatik. Halako batean, likore garrafatxoa hartuta etxetik atera zen,

lapurreta egin ziola oihuka eta aguazilaren aurrean salatzeko mehatxuka ari zitzaion andreari entzungor eginda, eta txabolara itzuli zen, azken tanta edateko asmoz, baita bi egunez mozkorra egosten lo igaro behar bazuen ere. Ez zion astirik eman; lehen hurrupa egiterako, hantxe agertu zitzaion. Hitz erdirik esan gabe, ohera eraman, esku dardaratiez biluzi eta malkoz busti arte maitatu zuen, etsipen amorratu batez. Aseta, eta, aldi berean, nahigabeak erdibituta, galdera bakarra egin zion, haren alboan zerraldo jaustean:

–Zergatik?

Familiaren nahia betetzeagatik, aitak lana ez galtzeagatik: horixe erantzun zion. Jauna beraz gutiziatuta zegoelako eta, biek ondotxo zekitenez, ez zuelako inola ere amore emango. Nahiago zuen emazte errespetatua izan, etorkizunik gabeko ohaide gutxietsia baino, zuzenean begietara so airtortu zionez.

–Ihes egingo dugu.

Luciak tristuraz irribarre egin, eta ezetz egin zuen buruaz. Ez zuten bitartekorik, ez zuten xentimorik; eskualdeko lurjabe handiena zen kondea, eta haren jabetzatik ateratzerako aurkituko zituzten. Inork ez zien lagunduko; herri guztia zen, gutxi-asko, jaunaren mendeko edo ari zen harentzat lanean. Jazarri egingo zieten. Damaso hil egingo zuten, baita bera ere, edo neska galduentzako komentu batean sartu.

–Joan beharra daukat –esan, eta arrapaladan jantzi zen–. Zelatan ari zaizkit etengabe, eta gurasoek eta anaiek etxe handira alde egin dutela-eta moldatu naiz etortzeko, baina laster izango dira bueltan. Agur, Damaso laztana. Ez zaitut hil artean ahaztuko.

Alde egiten ikusi zuen, bihotza erdiraturik, ezpainak es-  
tututa, baina ez zen saiatu hura geldiarazten. Ez zen mozkortu  
ere; eskopeta hartu, eta zain gelditu zen, aurrekoan jipoia  
eman zioten basapiztiak berriro agertuko ote ziren. Orain-  
goan, ez zitzaien hain erraza gertatuko; tiroa botako zien  
esku bat gainean jartzen ziotenerako. Ez zen inor azaldu La  
Morenan, ordea, eta handik bi egunera edan zuen garrafa txi-  
kiko likorea, igandean, elizako kanpaiak eztei deia jo zuenean.

Orain, goldeari bultzaka, txistuka ari zen Albina mandoa  
adoretzeko, begiak lurrean iltzatuta, harriren bat ote zegoen  
begira, eta ez pentsatzen saiitzen zen, alferrik. Lucia imaji-  
natzen zuen, nagusiarekin ohean. Behin baino ez zuen berak  
ikusi gizon hura, gaztetan. Ordurako zaharra zen gizona, edo  
hala iruditu zitzaion berari, eta hiriburuan ematen zuen ia urte  
osoa. Jakin-minez begira egon zitzaion, elizara zihoala Erramu  
Igandeko prozesiora, alkatea eta erretorea zituela albo bana-  
tan. Keinu onberak eginez agurtzen zituen baserritarrak, bere  
maizterrak, eta, jaunak aurrera egin ahala, txapela erantzten zu-  
ten haiek, bere aitak barne, begirunea erakutsiz. Harritu egin  
zen, baita beste guztiak ere, gelditu egin baitzen aitaren parera  
iritsita.

–Pozten nauk hi ikusteaz, Txikerra –agurtu zuen–. Hau  
al da hire mutikoa? Ongi erakutsi honi gero.

Eskua buru gainetik pasatu zion, eta nahi gabe barea za-  
paldu zueneko higuin bera sentitu zuen.

–Zertatik ezagutzen duzu? –galdetu zion gero aitari.

–Beretzat lan egiten diat, ez al haiz gogoratzen?

–Eta zergatik ez du besteekin hitz egin, orduan?

–Ehizaldi batean eraso zion otso bat hil nian.

–Eta zer eman zizun trukean?

–La Morena laga zidaan.

Ez zuten sekula gehiago hitz egin horretaz; iraganeko kontuak ziren. Hala ere, bitxia zen mundu honetan zuen jabetza bakarra erdi erorian zegoen txabola zahar bat eta zazpi gizalur eskaseko lur harritsu bat besterik ez izatea, nori, eta orain bere emazte bidezkotzat zuen emakumearen jabe ere bazen hari esker.

Luciaren ezkontzatik urtebetera, Damaso Jacintarekin ezkondu zen; alarguna zen Jacinta, Damaso bera baino urte batzuk zaharragoa, eta bost urteko haurra eman zion ezkontzari, baita hiru mila pezetako ezkonsari bikaina ere, senar zenaren oinordekoa, zeina baitzen zaldien tratularia. Bi urte lehenago hil zen gizona, suge sasiko bat bidera atera eta bere zaldi pertxeroia zutitu zelarik. Suerte txarra izan zuen: bizkarrrez erori, garondoaz harri bat jo, eta bertan gelditu zen zerraldo. Diruaz gainera, etxebizitza ere jarri zuen Jacintak, etxe bat, herriaren kanpoaldean. Likore garrafoitxoaren istilua ahaztuta, izeba Eusebia aritu zen ezkontzagin, txabolaraino joanda ilobari alargunaren eskua eskaintzera. Haren prestutasuna eta garbitasuna goretsi zituen, eta ez zitzaion ahaztu jostintzan sos politak irabazten zituela jakinaraztea. Ez zion esan, hori ez, emakumea ez zela grazia handien jabe eta belarri batetik gor eta bestetik erdi gor gelditu zela zaldien tratulariak emandako belarrondokoengatik. Ezkutatu egin zion, halaber, balizko beste senargaitzako batzuekin saiatu zela beragana jo aurretik, arrakastarik gabe. Ez zitzaion asko axola izan egiaztatzeak Jacinta ez zela grazia askoren jabea, erdi gorra izateaz gainera; azken batean, berdin zitzaion berari, maite

zuen emakumea alboan izaterik ez bazuen. Gainera, bera ere ez zen oso-osea.

Zeremonia xume batez ezkondu ziren, lanegun batean, goizean goiz; ondoren, hamaiketakoa egin zuten, erretorea eta emaztegaiaren familia zirela gonbidatu bakarrak: gurasoak eta bi ahizpa, zeinekin, bide batez, ez zuen ia harremanik ezkonberriak, berari axola ez zioten aspaldiko auziak zirela-eta. Izebak, senargaiaren amabitxia izanik, etxea eskaini zuen ezkon-otordurako, eta berak detailea eskertu zion garrafa txikia ezkur likorez beterik itzuli eta berak egindako belar pattarrez beteriko beste bat opari emanda; izebak berehalakoan gorde zituen, gonbidatuek hustu ez zituzaten. Eztei-gaua tratulariaren etxean igaro zuten, baina haurra, Maria del Valle, Valle deitua, aitona-amonen etxean gelditu zen lotan. Ezkonberriek ongi baino hobeto zekiten bien onuragarri izango zela egin berri zuten tratua, eta, bestalde, isila zen Damaso, eta are isilagoa Jacinta, entzumena galdu zuenez geroztik batez ere. Elkarrekin oheratu ziren, komeni zen bezala, eta, biharamunean, nor berera itzuli zen bata zein bestea: jostera, emakumea, eta txabolara gizona, baratzea, oiloak eta haragitarako erositako lau hilabeteko txerrikume pare gobernatzera.

Damasori goitik behera aldatu zitzaion bizitza gauza askotan. Orain, bazituen etxetxo bat, xumea baina goxoa eta itoginik gabea, jatekoa mahaian, arropa garbi eta lisatua eta haur bat ere bai, laster hartu zuena alabatzat, hura baitzen hitz eta pitz jardunez irribarrea ateratzen zion bakarra. Ez zuen Lucia ahaztu, ordea, eta harekin zetzala imajinatzen zuen gauero. Ilunpetan, haren izena oihukatzen zuen, bere maitasuna aitortzen zion behin eta mila bider, bere irrits gutzia isurtzen



zuen, akituta jausi arte, aseta bezainbat. Jacintak ez zuen ezer esaten; bera ez zen beste baten izena entzuten zuen urrunean, baina pozten zen senarrak luzatu egiten zuelako bere ekinaldia, bera plazeraren plazerez dardarazteraino, tratulariak sekula lortu ez bezala. Handik bederatzi hilabetera, Evaristo semea jaio zen. Ezkondu zirenetik lehen aldiz, gizonak maitasun tankerako zerbait sentitu zuen emaztearekiko, eta bi kana oihal oparitu zizkion, soineko bat josteko; harri eta zur gelditu zen emakumea, inoiz ez baitzuen oparirik jaso, ez senarrarengandik ez beste inorengandik. Beste bi seme-alaba izan zituzten ondoren, Pedro eta Herminia, eta zarataz, haur ahotsez, barrez eta negarrez bete zen laster etxea.

Aita bezala nekazaria izateko garai bateko asmoa ahaztu zuen Damasok, eta bere burua mando-aurreko lanetarako eskaintzeari ere utzi zion, mantso ibiltzen zen mando zahar bat besterik ez zuelako eta ez zuelako ateratzen eguneko pezeta eta erditik gora, huskeria, halako ahaleginerako. Txerri-talde txikiak diru pixka bat ematen zion, haiek hazteko lanaren ordain gisa. Dozena erdi bat buru izaten zituen, aldiko, gutxi gorabehera; bere zazpi gizalurreko sailak ez zuen gehiago hazteko ematen. Hala ere, hainbeste urteko lan saiatuaren ondoren, goldean eta harriak kentzen ezin konta ahala ordu eman ondoren, lurrak belar geruza harro bat zuen orain gainaldean, oinutsik ibiltzeko modukoa. Ez zekien oso ongi zergatik, larrearen kalitateagatik, aitik lur bazterrean landatutako arteen ezkurrengatik, txabola ondoko errekastoko urarengatik edo etxerako landatzen zituen barazki eta eltzekariengatik ote zen, baina kontua da ospe handia hartu zutela berak hazitako urdeek eta larrera askatu aurretik ere hitzartua izaten zuela

haien salmenta kondearen etxaldearen aldameneko El Cas-  
trilloko administratzailearekin. Horrez gainera, baimenik  
gabe saltzen zuen aitak eraikitako destilagailu bakunean egi-  
ten zuen belar uxuala; gizon trebeetan trebea zuen aita, eta urte  
asko zirela herritik igarotako galiziar alanbike alokatzaile ibil-  
tari batek emandako jarraibideei jarraituz eraiki zuen destila-  
gailua. Uxual horren eroslea, Atilano xaharra, ostatuaz aparte  
edariak saltzen zituen denda bakarraren jabea zen. Orobat sal-  
tzen zituen haziak, nekazaritzarako lanabesak, gozoak, kafea,  
tabakoa, espartinak, oihalak, helduak nahiz haurrak zoratzen  
zituzten denetariko salgaien nahas-mahasa.

–Argi ibili, gero –ohartarazi zuen–. Oilartxiki berak jakin  
gabe negozioa egiten duen edonori jazartzen zaiok, eta ez dik  
berehalakoan barkatuko txerriak beste bati saltzea.

–Eta zu?

–Nirekin ez da ausartzen. Laborantza Zentroko presiden-  
tea nauk ni, eta bazkide soil bat bera. Eta hik ere egin beharko  
huke bazkide, bide batez esanda.

–Zertarako?

–Ba, gauzak aldatzen direnean laguntza izateko, laster ze-  
torrek aldaketa eta.

–Zer aldaketa?

–Non bizi haiz, Txikerra?

Sorbaldak jaso, eta berean jarraitu zuen. Harik eta egun  
batean, Aquilino eta Eulogio txabolan agertu zitzaizkion arte.

Ez zuen ia harremanik auzokoekin: ez zen mezetara joa-  
ten, ezta festa edo ospakizunetara ere, eta denbora zen Lu-  
ciaren anaiekin topo egiten ez zuela. Jakina, ez zitzaion burutik  
pasatu ere egin bi anaien aitaren, Oilarraren, hiletara joatea;

urteak ziren hil zela, mando batek ostikoa emanda. Seme zaharrenak animalia bertan jo eta akabatu zuen, eta harrezkero ez zen izan Oilartxiki, *Matamando* baizik, herrikoek ezizenak jartzeko zuen joerari esker. Jakin zuen, halere, hark hartu zuela etxaldearen administrazioaren ardura, hildakoaren orde, eta arretaz behatu zion, ezagutu nahian bera baino zaharxeagoa baino ez zen gizon lodi zahartu hartan bizi osorako herren utzi zuen gazte itsusi hura. Eulogio Oilaxkok berdintsu jarraitzen zuen, bi pauso anaiaren atzetik, beti bezala. Minutu batzuk behar izan zituen hara zertara joan ziren konturatzerako, eta ez zuen ezusteko makala hartu. La Morena erreklamatzera joan ziren, esanez don Aurelioren, nagusiaren, jabetza legezkoa zela hura, eta eskatuz lursaila itzultzeko, orain administratzaile zenak eskuin eskuan paper bat astintzen zuen bitartean.

–Zertaz ari haiz? –galdetu zuen, eta kolore urdin ilun zorrotza hartu zuten bere begi grisek–. La Morena nirea duk. Kondeak nire aitari laga zioan.

–Ez daukak salerosketa kontraturik. Nagusiak hogeita hamar urterako errentarik gabe laga zioan Txikerrari, eta datorren hilean betetzen duk epea. Halaxe jartzen dik dokumentu honetan.

Papera eskutik kendu, eta hari begira gelditu zen istant batez. Ez zekien irakurtzen. Zimurtu, eta txerri askara bota zuen.

–Ospa hemendik oraintxe bertan, zuen emazteak alargun uztea nahi ez baduzue –esan zuen oiuhu egin gabe, txabolako ate ondoko eskopeta hartuta.

–Itzuliko gaituk, urde madarikatua! –mehatxu egin zion Matamandok–. Eta, orduan, geuk alargunduko diagu hire emazte urdanga hori!

Begien bistatik desagertu ziren arte zain gelditu, eta, gero, herrira joan zen ziztu bizian. Jacintarekin hitz egitea pentsatu zuen, hasieran, baina zaila gertatuko zitzaion hura guztia emazteari ongi azaltzea, eta ez zeukan oihuka aritzeko batere gogorik; hortaz, izebarenera joatea eta guztia hari kontatzea erabaki zuen. Izebak izango zuen lursailaren lagapenaren berri, harreman estua izan baitzuen bere gurasoekin. Eusebiak txintik esan gabe entzun zion, eta, gero, kaleko mantoia sorbalden gainean jantzi, eta esan zion laguntzeko don Anselmorengana.

–Zertarako?

–Herriko gorabehera guztien jakinean dago, eta nagusiaren laguna da.

Ez zion batere graziarik egiten erretorearekin hitz egitera joan beharrak; ez zioten sinpatia handirik elkarri, ustez biraoa esan zuela-eta belarrondokoa jo baitzion Damasori gaztetan. Hori gertatu aurretik, joaten zen elizara, mezetatik ateratzean Lucia ikusteko, eta bere ezkontzaren egunean eta seme-alaben bataioetan ere izan zen, baina ez zen harrezkero hara itzuli, eta bi gizonek ez zuten orduz geroztik gehiago elkar ikusi. Apaiza isilik egon zen izeba hizketan aritu zen bitartean.

–Eta jabegoaren salerosketa edo lagatze kontratua?

Oraingoan, zuzen-zuzenean Damasori begiratu zion don Anselmok.

–Ez dakit.

Egia esateko, berak sekula ez zuen kontraturik ikusi, eta, kontraturik baldin bazen ere, auskalo non ote zegoen. Zimurtu eta harrika botatako paperaz gogoratu zen, baina ez zuen ezer esan.

–Jai duzu orduan.

Eusebia eliztar fededunenetakoa zen, ez zuen huts egiten mezarik, ezta arrosario edo bezperarik; eliza garbitzen laguntzen zuen, mahai-zapiak eta albak garbitzen eta lisatzen zituen, igandeko meza osteko gosarian kruxpeta edo erroskilarik falta ez zekion arduratzen zen, eta estimu handitan zuen apaizak. Esan zien horregatik eta ez beste ezergatik prestatu zela don Aureliorekin hitz egitera, eta itxaroteko bera itzuli arte. Handik ordubetera bueltatu zen bisitatik, kopetilun.

–Hiriburuan da jaun kondea –esan zion emakumeari, ilobari jaramonik egin gabe–, baina administratzailearekin hitz egin dut. Ez da ageri zure koinatuarekiko inolako kontraturik hark erakutsitako dokumentuetan, bat izan ezik: lagapenari buruzkoa, ez salmentari buruzkoa. Bada beste bat, ordea, zinetan argi adierazita baitaude etxaldearen mugak, haien barruan dela La Morena.

–Ez dago zer eginik, orduan? –galdetu zion Eusebiak.

–Hori da. Paperik gabe, ezin egiazta liteke salmentarik epaile baten aurrean. Txikerraren semeak datorren hilaren hasieran utzi beharko du lurra; hala egin ezean, agintariek aterako dute handik.

–Ezta Jainko berberak ere zerutik jaitsia kenduko dit nirena dena.

Agurrik esan gabe eta izapideengatik eskerrak eman gabe alde egin zuen, izeba eta erretorea gurutzearen seinalea egiten ari zirela, entzun berri zuten zatarkeriarekin zeharo gaitziturik. Ez zen etxera joan; La Morenara itzuli, eta burua galdu arte edan zuen.

Handik bi astera, txabolan lanean ari zen igeltsero-talde bat, teilapea eraikitzen, harrizko hormak zementuz berregiten,

zorua lauzatzen, tximinia egiten, eta ate berria eta bi leiho jar-  
tzen. Etxe barruan zegoen apurra sutan erre zuten, eta nagu-  
siarentzako ehiza-aterpe bihurtu zen eraikina, baina bi anaiek  
eta haien lagunak soilik erabiltzen zuten. Ordurako, ukuilu  
txiki bat eraiki zuen Damasok bere emaztearen etxeari itsatsita,  
eta hantxe sartu zituen oiloak eta aitaren alanbikoa; txerri guz-  
tiak saldu, eta mando gazte bat erosi zuen haiekin aterako di-  
ruarekin, bi urte lehenago hil baitzitzaion mando zaharra. *Al-  
bina* izena jarri zion, gaztaina kolorekoa izan arren, mandeme  
zaharraren miraz, akaso, edo izen hoberik bururatu ez zi-  
tzaiolako, besterik gabe. Mando-aurreko hasi zen berriro.  
Baina ez zegoen Matamandorentzat lanean aritzeko prest,  
eta beste eskualde batzuetara jo zuen lan bila. Jacintak ez zuen  
ezer esan; zaku batean barruko arropa garbia sartu, pare bat  
egunerako janarekin fardela prestatu, eta alde egiten ikusi  
zuen, ez berari ez haurrei agurrik ere esan gabe. Ez zen ema-  
kume zuntzuna: konturatuta zegoen senarrari begitarte ilun-  
tzen zion amorru isilaz, ukuilu txikia eraikitzen ikusi zuen eta  
izeba Eusebiaren ahotik jakin zuen zer gertatu zen. Ez zen  
gehiago elkarganatu berarekin; bakarrik balego bezala ohean  
etzaten zen, emazteari bizkarra emanaz, eta kosta egiten zi-  
tzaion lokartzea. Gorrotoa suspertu zitzaion, azken zazpi ur-  
teetako lozorroaren ondoren, eta ez ahazteko erabakia hartu  
zuen oraingoan.